

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a / 533. zenbakia

ZEIN EGOERATAN DAUDE
**HERRIKO
DENDAK?**

ZABALIK

KIROLAK: HERRIKO TRIATLETAK LANERA/10 • GABERO ABESBATZA: BIHAR, MARIAREN LAGUNDIAN/12

AZALA: INAKI ITURBE



SARRERA DOAN


Astebururako plana zabal-zabalik



*Ikusiko
duzu!*

Eguenetan,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Amagoia Lasagabaster



ATREBENTZIAEZPADA/ Erosketak herrixan egiten dittuzu ala kanpora juten zara?



AITOR AGIRRE
34 urte



ABELINA ETXEBERRIA
55 urte



MARGA LÓPEZ
46 urte



MAITE ARANBURU
69 urte



YOLANDA PELICANO
26 urte



MIGUEL ANGEL ÁLVAREZ
49 urte

Normalian erropia kanpua erosten dot, komertzio gune haundixetan. Gune berian denda asko egoten die, eta hola ez daukat gehixegi mobidu biharrik. Ez jat gostatzen erosketak egittia.

Normalian hemen egiten dittut erosketak. Lehenago bai juten nitzan kanpora, baiña aspaldixan hemen egiten dittut. Herriko dendarixei be laguntzia emon bihar jakue, ez ixteko.

Hemen, herrixan egiten dittut erosketak. Saiatzen naiz, gaiñera, komertzio txikixetan erosten gune haundixetan baiño. Nahiz eta batzuetan haundixetara be juten naizen.

Ahal bada, behintzat, herrixan egiten dittut erosketak. Ez baldin badot nahi dotena aurkitzen, orduan kanpora juten naiz, baiña bestela herrixan. Horretara ohittu naiz.

Kanpora juten naiz erosketak egittera. Hemen ez dago ezer. Hemen oso denda gutxi dago, eta gero eta gutxiago, gaiñera. Nahixago izaten dot hiri haundixetara jun.

Erosi nahi doten gauzian arabera hemen erosten dot edo kanpua. Erropia erostera, adibidez, gehixenetan kanpora juten naiz, hirixetara, aukera haundixagoa dagolako.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK PATINETEAN IBILTZEKO 'U'-A Lagun koadrila etorri zaigu erredakziora. Patineteen ibiltzea oso gustuko dute, baina horretarako toki egokirik ez dagoela esan digute. Lehen, poligonoan Utxurako plataformak zituzten, baina kendu egin zituzten. Alkatearekin egon dira, eta esan digute hark U-a jartzen saiatuko dela esan ziela. Udan aspertzeko beldur dira, igerilekurik ere ez dagoelako. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

Bedelkar elkarteak

Dendarien elkartearen bazkide kopuruak behera egin du. Hil amaieran batzar orokorra dute.

Asier Garitano, entrenatzaile

Futbola utzi eta Alacant taldean entrenatzaile lanetan hasi da Asier Garitano bergarra.

Gabero abesbatza

Bihar, zapatua, emanaldia egingo du Gabero abesbatzak Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.

ASTEKODATUA

3.172

2002AN UDALTZAINGOAK JARRITAKO ISUN KOPURUA

Horixe da iaz udaltzainek jarri zuten isun kopurua, eta gehien erdiguneko kaleetan jarri dituzte. Bestalde, herri barruan 94 istripu izan dira, gehienak Ibargarai eta Amillaga kaleetan.

BESTEKEESANA

“Esperientzia Komunitarioen Truke Programaren helburua da, batik bat, bertako

parte-hartzaileei zuzenean erakustea gure ibarreko, Debagoieneko, kooperatibismoaren garapen sozio-ekonomikoaren esperientzia. Horrez guztiaz gain, Hirugarren Munduko esperientzia komunitarioez ikasi egin behar dugu, erreferentzia moduan euren autogestio eta garapen ereduak hartuta. Truke Programarekin nahi duguna da esandako bi aldean artean benetako elkarkidetzaren sortzea, alde batetik, hezkuntzan, beste aldetik, nekazaritzan, baina baita banaketan ere.

JOSE ANGEL MIKEO / Mundukideko idazkaria 'El Diario Vasco' / 03-03-07

BERAIEKIDINE / Jon Suinaga



Aurrera goaz?

Denboran aurrera eta atzera begiratuz gero, batzuetan ematen du aurrera baino, atzera goazela.

Antzina, gure herriak munduarekin komunikatzen zuten tren baten bisitatxoak agurtzen zuten. Tren-makina hura gelditu zen. Gaur egun, zaratsua eta abiadura handiz zeharkatuko gaituen tren bat inposatu nahi digute. Horren truke, sekulako ingurumen inpaktua ordaindu beharko dugu.

Urte askotan, igerileku batez gozatu dugu. Gestio txarrak, mantenimendu eskasak eta aurreikuspen faltak, eragin du instalazioa zatika jaustea eta arautik kanpo gelditzea... eta azkenean itxi egin dute. Urteak pasatuko dira ganorazko instalazioak eduki arte. Gainera, 50 metroko bainuontzia mantentzea ez da errespetatuko, nahiz eta, erabiltzaileen nahia eta eskakizuna hori izan. Bitartean txisteko irtenbideak eman

dituzte, kanpoko igerileku txikia estaltzea, esaterako.

Azkenaldian, herri ingurua hondatuta eta moztutako bidez beteta dago. Hori herria inguratuko duten errepedeen obregatik da. Aldiz, proiektu alternatiboaren gainean ez dugu beste ezer jakin. Konponbide horrek autobide askoz merkeagoa, ingurumen inpaktu gutxiagoa eta bidesari gabekoa planteatzen duen.

Duela ez hainbeste, eserlekuko askoko zinea genuen. Gaur lokal txiki eta deseroso batekin konformatu behar dugu. Herriak

garrasika antzoki egoki bat eskatzen du, adibidez bat ipintzeagatik, urtero herriko musika eskaintzak ospatzeko.

Bideo gela ere izan genuen. Kultura zerbitzua, herriaren zerbitzurako. Itxi egin zuten errentagarria ez zelako. Aberastasun kulturala ez da soilik parametro ekonomikoekin neurtu behar.

Gaur egun dena azkar eta presaka egiten da, eta batzutan norabidea galdu dugula dirudi.

“Aberastasun kulturala ez da bakarrik parametro ekonomikoekin neurtu behar den gauza”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 14**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- ZAPATUA, 15**
MOZOS. San Pedro 4 943 76 12 15
- DOMEKA, 16**
MOZOS. San Pedro 4 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 17**
CAMACHO. Otxirondo 4 943 76 11 74
- MARTITZENA, 18**
PUY. Barrenkalea 25 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 19**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- EGUENA, 20**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal-Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|----------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorenzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA
Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, hiru kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarran eta Banco Guipuzcoanon.

1974AN JAIOTAKOAK
1974an jaiotako enbarkaria, martxoaren 22an, Zabalan. Egundorretan Pol-Polen elkartuko dira, 12:00etan. Izenematea, Euskadiko Kutxan.

1975EAN JAIOTAKOAK
1975ean jaiotako enbarkaria apirilaren 12an. Izenematea (20 euro), Kutxan, San Martin plazako bulegoan.

ODOL ATERATZEA
Odol ateratzea eguaztenean, hilaren 19an, Seminarioan, 18:30ean hasita.

IKASTAROK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastarok eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastarok antolatuko dituzte. Argibideak, 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Txapligu taldean diharduten gaztetxoek Argazki ikastaroa izango dute bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Eta domekan, ordu eta toki berean, beisbolean jokatzeko dute. Txiskrilabi taldekoek, berriz, eskulanak izango dituzte bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etan.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Obarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Gaztetxeko lokalaren jabegoa, auzitara


Donostiako Elizbarrutiak eta Bergarako gaztetxeak Komenioko lokalaren jabegoaren gainean zeukaten auziaren epaiketa izan zen 1993ko martxoaren 15ean. Juventudes Parroquiales-ek eta gaztetxeak 26 urtez erabili zuten lokala berreskuratu zuen Elizbarrutiak handik gutxira.



BERTAKO BERRAK / Juan Martin Elexpuru

"Txirritxua"

Likido zorrotada.
—Gure iturrirax udan txirrixo txikixa dauka.
—Egundoko odol-txirrixua botaiatz eruan zeben ospitalera.



HAUGIROA!

MINIMOA 1°C
Astelehena, 10

MAXIMOA 27°C
Martitzena, 11

ASTEKO EURIA (l/m²) 17,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 5	19°C	3°C	14,1 l/m ²
Eguena, 6	16°C	7°C	3,1 l/m ²
Egubakoitza, 7	16°C	3°C	— l/m ²
Zapatua, 8	19°C	4°C	— l/m ²
Domeka, 9	24°C	3°C	— l/m ²
Astelehena, 10	25°C	1°C	— l/m ²
Martitzena, 11	27°C	5°C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOFILMAK

'LOS LUNES AL SOL'

ZUZENDARIA: FERNANDO LEON DE ARANO.
AKTOREAK: JAVIER BARDEM, LUIS TOSAR, JOSE ANGEL EGIDO.

HARIA. Egunero dozenaka gizon Vigoko kaleetan dabilta batera eta bestera, galdutako aukeraren bila. Langabezian daude, ontzioletan zuten lana galdu eta gero.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'THE GOOD GIRL'

ZUZENDARIA: MIGUEL ARTETA. AKTOREAK: JENNIFER ANISTON, JAKE GYLLENHAAL, JOHN C. REILLY.

HARIA. Justin-ek Texasko denbela txiki baten egiten du lan. Egunero kalamua erretzen pasatzen duen gizon batekin ezkondu da, eta bizitza aspergarria darama. Egun baten lankide gazte eta apasionatu bat iritsiko da eta ondo konponduko da Justin-ekin...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean (martxoaren 20), 20:00etan. Zineklubak.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

DENDAK/ Elkartaren eta hainbat dendari txikien iritziak jaso ditugu herriko denden egoeraren berri izateko

Bedelkar dendarien elkarteko bazkideen kopuruak behera egin du azken urteotan

E.M./M.B.

Zortzi urte dira Bedelkar, herriko dendarien elkartearen sortu zela. 150 bazkiderekin ekin zion ibilbideari eta gaur egun 105 ditu. Bai Bedelkarreko ordezkariak, baita dendariak ere kezka nagusi bat dute: azken urteotan mugimendu gutxi dabilela.

Indarrak batu, eta dendariak komunean zituzten kezkei guztiei aurre egiten saiatzeko sortu zuten, hain justu ere, Bedelkar, 1994. urtean. Sorrera urte hartan 150 bazkide zituen elkarteak eta 160 izatera ere iritsi zen. Gaur egun, baina, behera egin du nabarmen; 105 bazkide daude.

Beatriz Beistegik, elkarteko idazkariak azaldu duenez, beharakada horren arrazoiak hainbat dira: "batetik, tabernariak hartu behar dira kontuan; batzuek taberna utzi eta haien ordezkari hartu dutenak ez dira bazkide egin azkenaldian. Bestetik, inork ez du nahi izaten zuzendaritza batzordean lan egin eta askok uko egiten diote elkartearen jarraitzeari". Era berean, bazkide berriak egitea gero eta zailagoa dela adierazi digu Beatriz Beistegik.

DENDARIEN KEZKA NAGUSIAK

Bedelkarren sorreran dendariak zituzten kezka eta gaur eguneko oso antzekoak dira: "aparkaleku falta, argi falta kaleetan eta edukiontzia gehiagotan hustea, besteak beste" idazkariaren esanetan.

Adierazitako kezka horiek konponduz gero, herriko dendetan jende gehiago ibiliko zela uste dute Bedelkarrekoek; izan ere, hori da arazo nagusietako bat, jendea beste herri batzuetara joaten dela erosketak egitera. Hiri handietako merkatal gune handiek ere zerikusia dute horretan. Ohiturak aldatuz joan dira eta aipatutako merkatal guneetan erosketak egiteko eta aisialdirako eskaintza zabala aurkitzen dute erosleek. Hain zuzen, merkatal gune handien konpetentziari aurre egitea izan zen Bedelkar sortzeko beste arrazoietakoa bat.

BEDELKARREN EKINTZAK

Indar handiarekin sortu zen Bedelkar 1994an; bilerak ere aste-oro egiten zituzten. Baina azkenaldian moteldu egin da haren jardura. Kaleko giroa pizteko helburuarekin, urtean bi zozketa egiten dituzte, bata udan eta beste Gabonetan. Sasoi horretan kalea girotzeko musika egoten da egubakoitz arratsaldeetan, Musika Eskolako taldeekin eta Jarduneko trikitilariarekin. Era berean, Aratusteetan kalea gehien animatzen duen taldeari



MONIKA BELASTEGI

Gaur egun herriko 105 dendari dira Bedelkarreko bazkide. Martxo bukaeran batzar orokorra dute eta presidente berria aukeratuko dute.

afari merienda ematen diote Bedelkarrekoek.

Dendariak argi daukate herri-tarrek Bergaran erosketak egiteko bideak aurkitu behar dire-

la. Euren aldetik badute zer egin baina Udalaren laguntza ere ezinbestekotzat jotzen dute: herria erakargarri egin behar da bertakoondako eta kanpoko jendea-

rendako. Horretarako beharrezkoak dira, esaterako, aparkalekuak eta aisialdirako zerbitzuak.

Bedelkarrek, bere aldetik, martxoaren bukaeran batzar oro-

korra egingo du. Besteak beste, Ana Iztueta elkarteko presidentearen ordezkaria zein izango den erabakiko dute dendariak. Iztuetak bi urte egin ditu karguan.

Dendariak mintzo

1. Zein da komertzioaren egoera? 2. Zer egin egoera hobetzeko?



BEATRIZ AGIRRE

AGIRRE ARROPA DENDA

1. Azkeneko hiru urtetatik hona salmentak gelditu daudela esango nuke. Arrazoi nagusia da jende asko kanpora joaten dela erosketak egitera, merkatal gune handietara. Gazteengan nabarmenagoa da, gainera, joera hori.

2. Denda txikiak ematen dugun tratua eta konfiantza gehiago aipatu beharko litzakeela uste dut. Bestalde, alde zaharra txukundu beharra dagoela uste dut, besteak beste, argiak jarritz.



KONTXI GABILONDO

GABILONDO ARTILE DENDA

1. Azkeneko zazpi urtetatik hona beherakada mugimendua dendetan. Baina joera hori herriaren bizitasunean nabari da orohar. Lotarako herri bilakatzen ari da. Jendea kanpora doa eta kanpokoak ezin dira etorri zerbitzu egokirik ez dagoelako, aparkalekuak, esaterako.

2. Dendariak badugu zereginik, baina Udala herriko giroa pizten ahalagindu beharko litzateke.



JUAN ETXABARRI

ARIZNOA TABERNA

1. Merkatal gune handiek zerikusia izan dute herri txikiaren mugimendua jaisteko. Tabernetan ere giroa dezente jaitsi da, gauze ibiltzea baino jendeak beste gauza batzuk egitea nahiago duelako gaur. Ohiturak aldatu dira.

2. Gaueko giroa piztea ez da erraza, baina Bergaran ez dago gaueko tabernarik, Beasainen, Arrasaten edo Eibarren moduan. Azken baten, ez dago taberna diferenterik.



PELLO URZELAI

URCELAY HARATEGIA

1. Nahiko gelditu dagoela ikusten dut. Dendarien artean zaila da gora egin duen gremiorik aurkitzea. Merkatal egonkortuta dagoela esango nuke.

2. Aparkalekuen arazoa aipatu dugu behin eta berriz. Bestalde, hainbat kale oinezkoentzako gune bihurtzea ondo legoke, baina zerbitzuak eskainiz. Merkatal gune handiek arrakastaren zergatia hori, zerbitzu erakargarriak eskaintzen dituztela.

ELKARRIZKETA

MANU HERRERO /SUKALDARIA

“Pintxoak artelanak bezalakoak dira, sinpleago edo landuago egin daitezke”

MONIKA BELASTEGI

Aurreko asteburuan ikusi eta dastatu ahal izan genituen Manu Herrero sukaldariaren pintxoak Nahikari tabernan. Bada, aste-buru honetan Kaiak tabernan egingo du pintxo dastatzea; pintxo tradizionalak izango dira.

Bergarakoa zara, baina hainbat urte daramatzazu herritik kanpora.

Hogeita hiru urte daramatzat herritik kanpo. Gaur egun 46 ditut; hortaz, bizitza erdia herritik kanpora eman dut. Bereziki Bartzelonan eta Gironan. Baina orain dela gutxi herrira bueltatu naiz.

Ofizioz sukaldaria zara.

Bai, baina nire kasa ikasi dut, ez naiz inongo eskolatan ibili. Sukaldeko laguntzaile hasi nintzen, 1980an, Bartzelonako jate-txe baten, eta poliki-poliki nire lehenengo jatetxea zabaltzea lortu nuen, 1986an, Bartzelonan.

Jatetxe harekin sei urtez egon nintzen, hiriz aldatzea erabaki nuen arte. Gironara joan nintzen, Pirinioetara, eta han beste bat zabaldu nuen.

Euskal sukaldaritzan oinarritu zinen?

Hasieran bai, baina denborarekin, eta sukaldaritzaz asko gustatzen zaidanez, errezetak aldatzen hasi nintzen, moldatzen. Betiko sukaldaritzaz egiten dut, baina modernizatua. Ez da sukaldaritzaz berria; nahiko tradizionala naiz, baina ukitu modernoagoarekin.


Eta zelan sortu da Bergarako bi tabernatan pintxo dastatzea egiteko ideia?

Laguntasun kontua izan da. Orain dela urte asko sortu zen ideia, eta orain Bergaran nagoez, bada, aurrera eraman dugu. **Katalunian izan dituzun jatetxeetan bazen pintxorik?**

Bai, baina kostatu zitzaidan sartzea, jendea ez zegoelako ohituta. Kontuan izan behar da 1986az dihardugula. Dena dela, batzuek bazekiten zer ziren pintxoak, Euskal Herrian egonak zirelako, edo entzunez. Denborarekin baziren batzuk domeketan pintxotara bazkaltzera etortzen zirenak.

Pintxoak prestatzea artea dela uste duzu?

Batzuk bai, artelanak bezalakoak dira. Baina hori gauza guztiak bezala da, errazago edo landuago egin daitezke: osagarri askorekin, gorputz edo testura handiarekin, hainbat zaporeduna... Bestalde, dastatzeek lan handia ematen dute, pintxo gauza txikia izanik, asko egin behar direlako.



MONIKA BELASTEGI

“Gauza guztietan moduan, sukaldaritzan ere oinarritzkoa gustuko izatea da”

Zuk sortzen dituzu pintxoak?

Sukaldaria bazara, margolaria edo argazkilaria izanda moduan, beti begiratzen dituzu zure arloarekin lotutako gauzak, liburuak, esaterako, eta hortik ere iradokizunak ateratzen dituzu. Baina oinarritzkoena, gustuko izatea da; gauza berriak aztertzea eramaten zaituelako. Eta urteekin, zaporeak ezagutzera heltzen zarenean, zapore nahasketak egiten hasten zara, testurak nahasten, bide berriak jorratzen, azken batean. Baina esan bezala, egiten duzuna gustura egitea da kakoa, egiten duzun bizitza.

Zer da pintxo on bat? Nola definituko zenuke?

Itxurak badu garrantzia. Ez da gauza bera pintxo berbera modu

“Dastatzeek lan handia dute, pintxo gauza txikia izanik, asko egin behar direlako”

erakargarri batean aurkeztea edo itxura eskasagoarekin. Zaporeak ere oso garrantzitsuak dira. Sukaldaritzaz berriarekin eta sukaldari berriekin ez naiz bat etortzen askotan. Joera guztietara zabalik nago, baina batzuetan egiten dituzten nahasketak ez dira nire gustukoak.

Taberna batera sartzen zarenean eta pintxoak badaude, zeri erreparatzen diozu lehenik?

Barra osoari erreparatzen diot, multzoari, eta gero pintxoak sailkatzen joaten naiz.

Baina politena hori da, taberna batera sartu eta barra pintxoak josita ikustea. Begiak asko egiten du, eta gauzak begietatik asko sartzen dira.

Datorren martitzena, traste zaharrak ateratzeko eguna

MONIKA BELASTEGI

Debagoieneko Mankomunitateak etxeko traste zaharrak jasotzeko egun bereziak daukela gogorarazi nahi du; hileko lehen eta hirugarren martitzena, hain justu. Hortaz, hurrengo bilketa 18an izango da.

Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak eta etxeetako beste tresna batzuk biltzeko zerbitzuaren egutegia gogorarazi nahi die herritarrei Debagoieneko Mankomunitateak.

2002ko abenduan, etxe guztietara bidali zuten traste zaharrak jasotzeko 2003an izango zen egutegia. Hala eta guztiz ere, azkeneko hilabeteetan egutegia errespetatzen ez dela dio Mankomunitateak; gero eta gehiago ateratzen direla trasteak bilketa egunetik kanpo. Jokabide hori dela eta, tresnak kalean geratzen dira batu barik, hainbat egunez, hurrengo bilketa egunera arte, eta batzuetan bilketa bereziak behar

izaten direla ere gehitu dute Mankomunitateko iturriek.

HILABETEKO LEHEN ETA HIRUGARREN MARTITZENETAN

Bergaran hilabeteko lehen eta hirugarren martitzenak dira etxeko traste zaharrak ateratzeko egunak. Bestalde, bilketa gainera egiten dutenez, trasteak 20:00etatik 22:00etara bitartean ateratzen komeni dela ere adierazi dute Mankomunitateko iturriek.

BATZUEK TRASTEAK ATERA AURRETIK DEITU EGIN BEHAR DUTE

Horrez guztiaz gain, badira hainbat kaletako bizilagunak traste zaharrak atera aurretik telefonoz deitu behar dutenak. Kale hauek: Gabiria, Labegaraietatik Angiozarrera Angiozara barne), San Lorentzoko zubitik Osintxura (Osintxu barne) eta San Lorentzoko zubitik Uberara (Ubera barne). Kale horietako bizilagunak 943 77 91 06 telefonora deitu behar dute trasteak atera aurretik.

LABUR

EAJk eta EAK zerrenda bateratua aurkeztuko dute datozen udal hauteskundeetan

EAJ eta EA alderdiak elkarrekin aurkeztuko dira maiatzeko udal hauteskundeetara. Bigarren aldia da hauteskundeetara elkarrekin aurkezten direna; 1999ko udal hauteskundeetan osatu zuten zerrenda bateratua lehenengoz.

Gaur egun zortzi zinegotzi ditu koalizioak Udalean: horietako sei EAJkoak dira eta bi EAKoak. Jakinekoea denez, koalizioaren zerrendaburua Victoriano Gallastegi izango da. Horrez gain, zerrenda osatuko duten gainerako kideen izenak erabaki barik daudela adierazi dute EAJko iturriek.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2003ko zergaren errolda onartu berri du. Otsailaren 28an onartu zuen, hain justu ere. Hori horrela, 30 eguneko epea zabaldu dute errolda horren aurkako errekurtsioak aurkezteko.


Bestalde, zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik da dagoeneko eta maiatzaren 31n itxiko dute. Ekainaren 2tik aurrera errekararekin kobratuko dutela jakinarazi dute Kontu-hartzailetzatit.

Ezindu psikikoen familiakoendako eta lagunendako heziketa ikastaroak

Eskualdeko Laguntza Taldeek ezindu psikikoen familiakoendako eta lagunendako heziketa ikastaroak antolatu dituzte Udala-ekin, Agufes-ekin eta Foru Aldundiarekin lankidetzan. Ikastaroak kultura etxean izango dira, apirilaren 2tik 30era, egunero, 11:00etatik 12:30era. Izena Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuan eman behar da (Ines). Informazioa, 943 77 91 65 zenbakian.

‘La renuncia nacional del PNV’ liburua aurkeztuko dute egunean Miguel Altunak

La renuncia nacional del PNV liburua aurkeztuko du Josemari Lorenzo Espinosa egileak datorren egunean, hilak 20, 19:00etan Miguel Altuna Institutuko areto nagusian. Lorenzo Espinosa historian doktorea da eta gaur egun Deustuko Unibertsitatean eskolatu ematen ditu. Liburuaren aurkezpena ...ta segi aurrera plazaratu formak antolatu du.



ARTXIBOA

Ibargarai kalea da istripu gehien gertatzen diren kaleetako bat. Udaltzaingoak abiadura murrizteko bandak proposatu ditu.

ZIRKULAZIOA/ Istripuak, berriz, 94 izan ziren, gehienak Ibargarai eta Amillaga kaleetan

laz 3.172 zirkulazio-isun jarri zituen Udaltzaingoak

MONIKA BELASTEGI

Udaltzaingoak 2002. urteko memoria prestatu du eta kaleratzeaz dago. Txostenean jasotzen denez, iaz 3.172 isun jarri zituzten zirkulazio arauak urratzeagatik. Bestalde, 94 istripu gertatu dira, eta urtetik urtera kopurua behera doa, txostenean jaso dutenez.

3.172 isun horiek herri barruan egindako zirkulazio urraketa batengatik jarritakoak dira. Horietatik 1.521 bergarrei jarritakoak dira eta gainerako 1.651 isunak, kanpoko gidariei. Udaltzaingoak bergarrei dagozkien isunak bakarrik tramitatzen ditu, eta isun kopuru hori dirutara itzuliz gero, 31.055 euro da. Bestalde, 2001ean baino 69 isun gehiago ipini dituzte.

Isun gehien erdialdeko hamar kaletan jarri dituzte udaltzainek: Ibargarain, Kruz Gallastegin, Irizarren, San Martin plazan, Ariznoa plazan, Masterrekan, Martokon, Zurraderon eta Juan Irabalen. Udaltzaingoaren txostenak azaltzen duenez, kaleotan 2.085 isun jarri dituzte, eta arrazoia aparkaleku eskasia dela adierazten du. Erdialdeko kaleak izanik, zirkulazio handien izaten dutenak direla gehitzen du; izan ere, azoka, dendak, epaitegia, UNED, pilotalekua... kale horietan daude, eta hor ibiltzen da jende gehien.

Isunek gora egin duten neurrian, ibilgailu kopuruak ere gora egin zuen 2002an. Erroldan 8.055 ibilgailu erroldatuta zeuden iazko urtarrilean, eta horietatik 7.042 autoak ziren. Memoriak dioenez, urte batetik bestera gorakada handia nabari da ibilgailu kopuruan: 2001ean baino 347 ibilgailu gehiago zeuden iazko urtarrilean. Horrela, 2,16 biztanleko turismo bana dagokigu bergarroi.

BEHERA HERRI BARRUKO ISTRIPUEN KOPURUA

Herri barruan izandako istripuak ere jasotzen dira txostenean. 94

gertatu ziren iaz, orain dela bi urte baino 32 gutxiago: horietatik 49 ibilgailuen arteko kolpeak izan ziren, zazpi oinezkoen harrapatzeak, eta 28 zuhaitzen, farolen... kontrako kolpeak.

Istripuek behera egiteko arrazoi bat da, Udaltzaingoaren ustez, hainbat gunetan jarritako abiadura murrizteko bandak, txostenak dioen moduan, horrek astiroago gidatzera derrigortzen du-eta.

Istripu gehienetan kalte materialak besterik ez dela sortu aurreratzen du txostenak. Zaurituei dagokienez, 26 lagun zauritu ziren, 23 arin eta hiru larri.

ISTRIPU GEHIEN IBARGARAI ETA AMILLAGA KALEETAN

Horren haritik, istripu gehien eguen eta egubakoitzetan gertatu dira eta kalerik arazotsuenak Ibargarai eta Amillaga dira. Ibargarai kaleari dagokionez, erdigunean zirkulazio handien duen kalea da, herriko ardatz nagusi bihurtu delako. Oinezkoen harrapatzeak igo direla azaltzen du txostenak, eta horregatik, hor ere abiadura murrizteko bandak jaritzea proposatu du Udaltzaingoak.

Amillagari dagokionez, gertatutako istripuak nahiko larriak izan dira, ibilgailuek abiadura nahiko handia hartzen dutelako eta bidegurutzea ez delako egokia, korapilotsua eta arriskutsua baizik. Hori horrela, biribilunea egitea proposatu dute.

7.042 auto daude erroldatuta. Hori horrela, 2,16 biztanleko turismo bana dagokigu

Ibargarai eta Amillaga dira istripu gehien gertatzen diren kaleak

Osoko bilkuren aretoan hobekuntzak egiten dihardute

MONIKA BELASTEGI

Bergarako udaletxe osoko bilkuren aretoan hainbat hobekuntza egiten dihardute. Besteak beste, zinegotzien mahai eta aulkiak aldatuko dituzte eta megafonia sistema berria jarriko dute.


Udaletxea zaharberitu zen garaian osoko bilkuren aretoko oholtza aldatzekotan egon ziren arrin, bere horretan utzi zuten, azkenean, Udaleko arduradunek. Dena dela, hori ere berritzeko garaia dela erabaki dute, besteak beste, megafonia sistema izorratuta dagoelako.

Egokitze lanak hasita daude, eta dagoeneko oholtzaren barruko aldetik argiteria eta megafonoa sistema berria sartu dituzte. Horrez gain, oholtzara igotzeko mailak lekuz aldatu dituzte.

MAHAI BERRIAK ETA ANTOLATZEKO MODU BERRIA

Horrez guztiaz gain, zinegotzien mahaiak aldatu egingo dituzte, eta bakoitzak argitxo eta mikrofonoa izango ditu. Orain arte zeuden mahai luzeak kendu egin dituzte eta horien ordez zinegotzi bakoitzarendako mahai bana jarriko dute.

Gainera, banakako mahai horiek hartzen duten tokia dela eta, zinegotziek orain arte jarritako zuten eredu aldatu egingo da. Aurrerantzean oholtzaren ezkerreko aldean sei zinegotzi jarriko dira -lehen zazpi-, eskumako aldean sei -lehen zazpi-, eta aurrez aurre alkatea eta beste lau zinegotzi -lehen alkatea eta bi zinegotzi-. Idazkaria ere lekuz aldatuko dute; aurrerantzean areto erdian egokituko duten mahaian eseriko da Udaleko osoko bilkuretan.



MONIKA BELASTEGI

Altzari berriak jartzea besterik ez da falta aldatetokian bukatzeko.




Afrikatik eta Hego Amerikatik gurera

Mundukidek laugarren urtez jarraian antolatutako Esperientzia Komunitarioen Truke Programaren barruan, 14 lagun etorri dira Debagoienara. Programak bi xede ditu: hemengo kooperatibismoaren garapen sozio-ekonomikoaren esperientzia erakustea eta hango esperientzia komunitarioaz ikastea. Gure artean dauden bitartean Mariaren Lagundian biziko dira.



EMAKUMEAREN EGUNA OSPAZTEKO TXOKOLATE JANA

Azken urteotan ohitura bihurtu da yoga ikastaroetan eta Helduen Heziketa Eskolan diharduten emakumeek, martxoaren 8a ospatzeko, meriendatxoa egitea. Aurten ere halaxe egin dute. 90 emakume inguru izan ziren martitzen arratsaldean Pertxa elkartearen egindako ospakizunean. Lagunartean txokolate gozoa jan zuten eta jarraian dantzaldia izan zuten Iñaki Quintanillarekin. Primerako giroa izan zuten. Quintanilla maisua da horrelako ekitaldiak alaitzen eta emakume guztiek dantza baten amaitu zuten. Emakume langileak bai, baina parranda zaleak ere bai! Eutsi sasoiari!!!



EGUNKARIAREN ALDEKO SALMENTA BIHAR, ZAPATUA, PLAZAN

Atzo, eguna, sindikatuek deitutako *Euskaldunon Egunkariaren* aldeko lanuzteak eta kontzentrazioak izan ziren Euskal Herri osoan. Bihar, zapatua, Egunkariaren aldeko salmenta postua jarriko dute San Martin plazan, 11:00etatik 13:00ak bitartean. Besteak beste, kamisetak, metxeroak, pegatinak eta bono laguntzak jarriko dituzte salgai eta harpidetza kupoiak ere eskuragarri izango dira.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

AZUR



ARGAZKI ERAKUSKETA

NAHIKARI taberna. Masterreka 20. Bergara. Tel. 943 76 57 71

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA


**IBARGYREN
PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako
nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79

MINGAINARITIRAKA



Xabier Etxaniz

ERREKI ERRETEGIKOA

Xabik 30 urte dauzka eta duela 12 bat urtetik egiten du lan Erreki erretegian, gurasoekin. Realeko bazkide da azken 10 urteotan. Bihar Santanderren Real animatzeko antolatuta zeukaten bidaia bertan behera geratu da azkenik.

- Lanean, zerbitzari ala sukaldari lana nahiago? Zerbitzari lanetan ibiltzen naiz gusturago.
- Txikiteoak behera egin du? Bai, igartzen da. Jendeak beste gauza batzuetarako aurrezten du.
- Sukaldari ona zara? Moldatzen naiz.
- Janari eta edari bat? Makarroiak eta alkoholik gabeko garagardoa.
- Parranda zalea zara? Parrandarako toki bat? Orain gutxiago ibiltzen naiz. Bergarako giroa gustatzen zait.
- Txikitán zer izan nahi zenuen? Realeko jokalaria.
- Zer egingo du Realak aurten? Liga irabazteko itxaropena daukat.
- Jokalaririk gustukoena? Nihat. Ezin hobeto dabil aurten. Fenomenoa da.
- Egunkarian zer irakurtzen duzu lehenbizi? Kiroletako orrialdeak.
- Nortzuk irabaziko dute binakako pilota finala? Olaizolak eta Pascualek.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna? Osasunari.
- Besteengan gehien baloratzen duzuna? Lagun onak izatea.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu? Lagunekin irtetea eta mendiko bizikletan ibiltzea.
- Musika talde bat? Egondako azken kontzertua? Su ta gar. Abenduan Reincidentes ikusi nuen, Jam-en.
- Telebistako programa bat? Ikusi ezin duzun beste bat? *Sorginen laratza*. *Hotel Glamour* penagarria da.
- Kinielan milioi bat euro irabaztekotan? Taberna itxi eta gurasoekin joango nintzateke denboraldi luze baten bidaia on bat egitera.
- Kinielan zer jarri duzu biharko Racing-Real partiduan? 2a. Realak irabaziko du, ziur.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

EIDER GONZÁLEZ

28 URTE / AKTOREA / MADRILEN BIZI DA

“Aktore batendako egunero lanera joatea loteria irabaztea bezala da, pagotxa”

EDU MENDIBIL

Kazetaritza ikasketak egin zituen Eiderrek, baina berehala konturatu zen benetan antzerkiaren esparrua zuela gogoko. Bilboko Juan Antxieta arte eszenikoen eskolan bi urtez jardun ondoren, 2001ean, udan, Madrilerara joan zen, Cristina Rotaren eskolara. Han ikasturte osoa eman ondoren, Arte Dramatiko ikasketak osatzeko Antzerki Musikaleko espezialitatea egin zuen, Angels Gonyanolsek. Eta ordutik hona ez zaio lanik falta izan. *Casting*-etara aurkezten hasi zen eta, besteak beste, *Un paso adelante*, *Policías*, *Cuéntame* eta *Geminis* tele-sailetan hartu du parte, paper txikiak eginez: “Lan egiteko deiak jasotzen hasten zarenean pagotxa da, sinestezina. Oraingoz zortea izaten nabil, eta ea luzerako den... Ofizio honetan gauzak asko aldatzen dira egun batetik bestera, eta, topikoa izan arren, eustea da zailena”.

Orain arte, esan bezala, nagusiki telebistarako egin du lan, nahiz eta antzerkian eta zineman ere esperientzia duen. Karpas Teatro taldearen *Sueño de niño* umeendako antzezlanean egin zuen lan, eta zineman, berriz, Achero Mañasek zuzen-

“Madril izugarri gustatzen zait; sekulako eskaintza dauka, eta ez dago aspertzetik”

du duen eta estreinatzeaz dagoen *Noviembre* filmean hartu du parte. *Yoyes* filmean ere lan txiki bat egin zuen Eiderrek: “Lana badago, eta oso gustura nago. Kanpotik etorrira eta aitabitxirik ez baduzu, zaila da lanerako atak zabaltzea, baina ahalegintzen naiz, eta ezin naiz kexatu. Madril eta halako hiriak oihanak dira, jende asko dabilelako nire moduan, lan egiteko gogoz. Eta aktore batendako egunero lane-

ra joatea loteria irabaztea bezala da. Horren harira, telebistan lan egitea oso mesedegarri gertatu zait nire burua ezagutzera emateko eta ekonomia aldetik segurtasun bat izateko, antzerkian hilerio soldata izatea nekezagoa delako”. Gaur egungo dantzako eta dantza klasikoko ikastaroak egin ditu Eiderrek Katie Graham irakasle ospetsuarekin, eta antzerki musikaleko ikuskitzuen baten parte hartu nahiko luke, “interpretazioa, kantua eta dantza uztartzen direlako. Nire ilusioa etorkizunean ikuskitzuen bat egin ahal izatea da, baina horretarako izen bat izatea beharrezkoa da”.

Kazetaritzako azken bi urteak Madrilen egin zituen, eta ordutik hona lagun asko ditu. Ikasketetako lagun batekin batera bizi da, Atochako tren geltokitik oso gertu. Madril izugarri gustatzen zaio Eiderri: “Madrilek sekulako eskaintza dauka, hemen ez dago aspertzeko aukerarik. Hiri handietan moldatzen naiz ondoen. Bergaran ito egiten naiz, eta oso gaztetatik neukan Madrilerara bizi izatera etortzeko ilusioa, Espainiako hiri erakargarriena delako. Etxean moduan sentitzen naiz hemen”.



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

DUATLOIA ETA TRIATLOIA

Herriko hamar lagun denboraldi honetan Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldean

Debagoien osoko 42 kirolari izango ditu taldeak. Bihar denboraldiko bigarren duatloia izango dute, Basaurin

EDU MENDIBIL

Antxintxika Debagoiena taldeak denboraldi berriari ekin dio. Ibarreko 42 lagunek dihardute taldean, tartean Bergarako hamar lagun. Irailera bitartean Euskadiko duatloi eta triatloi txapelketak izango dituzte. Bihar, zapatua, Basaurin lehiatuko dira.

Euskadiko Duatloi Txapelketaren barruan 12 proba izango dira eta bihar Basaurin jokatu dena bigarrena izango da. Partaideek honako distantziak bete beharko dituzte: 5 Km korrika, 24 bizikletan eta, azkenik, 2,5 Km korrika. Debagoiengan proba bakarra jokatu da, Oñatin, hilaren 22an.

Antxintxika Debagoiena taldeak bigarren denboraldia bete du aurten. 42 lagun daude taldean, tartean hamar bergarar: Gotzon Mendizabal, Aitor Lascurain, Aritz Kortabarria, Xabier Uribesalgo, Unai Alberdi, Ritxar De Goñi, Aitor Sotil, Joseba Zuzaeta eta Aitor Rementeria. Virginia Rubio da taldeko emakume bakarra.

Guztiek orain dela aste batzuk ekin zioten denboraldia gertatzeari. Aitor Rementeria dugu taldeko beteranoetako bat. Haren hitzetan, "orain dela hiru urte herri mailan taldea sortu genuen eta iaz ibarreko hainbat lagun



Begarako hamar lagun dabilta Antxintxika Debagoiena taldean.

batzea erabaki genuen. Arrasateko, Aretxabaletako, Leintz Gatzagako, Antzuolako eta Bergarako jendea gaude eta gure helburua ahalik eta lasterketa gehienetan parte hartzea, giro onean jardutea eta lizentzia kopuruari eustea da". Horren harira, taldeak nabarmen egin du gora. Orain

Taldeak Euskadiko duatloi eta triatloi txapelketetan hartuko du parte

dela hiru urte 13 lagun ziren eta gaur egun, berriz, 42 lizentzia atara dituzte. Bestalde, Oñatik talde propioa dauka, iaz bezala.

LAGUNTZA ESKASA

Taldea handituz joan den arren, laguntza falta sumatzen dute Antxintxikakoek. Rementeriak

adierazi digunez, "Udalak diru laguntzak banatzeko erabiltzen dituen irizpideekin ez dira gutxiengoan diren kirolak banatzen. Guri nahiko dirulaguntza txikia ematen digute, lizentziak ordaintzeko ere ez zaigu behar. Bestetik, entrenatzeko ez daukagu inolako erraztasunik: kirol txartela ateratzera behar bezain gaituzte kiroldegiko gimnasioa eta igerilekua erabiltzeko, Bergara KEko beste hainbat sailtako koek egin behar ez dutena. Arrasaten eta Oñatin, berriz, hango instalazioetan entrenatzeko erraztasunak ditugu". Bergarar esan bezala, kiroldegiko gimnasioan eta hango inguruetan entrenatzen dira: "Korrika egiteko ez daukagulako inolako arazorik" dio Rementeriak.

TRIATLOI PROBAK, UDAN

Duatloi Txapelketaren ostean udan triatloi probak izango dira. Euskal Txapelketarako 10 proba puntuagarri egongo dira eta Arrasaten eta Urkulun jokatu dena ekainaren 7an izango da.

Bestalde, uztailearen 6an Austriako Klagenfurt herrian jokatu den Iron Man proban izango dira Aritz Kortabarria, Joseba Zuzaeta eta Aitor Rementeria. Karlos Baleztina, Julen Garitano eta Imanol Pildain taldeko antzuolarrek ere hara joateko asmoa daukate.

Eskubaloiko hiru partidu, bihar, Labegaraietako kiroldegian

E.M.

Senior mailako mutilen taldeak izan ezik, eskubaloia saileko gainerako taldeek etxean jokatu dute zapatuan. Senior mailako neskek Ereintzaren aurka jokatu duten partiduak garrantzi handia dauka.

BKEko senior mailako nesken taldea egoera larrian dago eta bihar final berria izango dute Xabier Lijóren eta Josu Zeziagaren jokalariek. Azken jardunaldian 3 goleko aldearekin galduta zuten bergararrek Salesianos taldearen aurka, 22-19. Partidu bat baino gehiagotan zortea ez dute alde izan mahoneroek (gol bategatik galdu dute hainbat aldiz) eta liga amaiera bitartean gogor egin beharko dute lan, sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko. Bihar, esan bezala, Ereintzaren aurka neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan.



Josu Zeziaga eta Xabier Lijó, nesken taldeko entrenatzaileak.

KADETE NESKAK ETA GAZTE MUTILAK

Zapatuan beste bi partidu jokatu dira: kadete mailako nesken taldeak Mollarri taldearen aurka jokatu du, 12:00etan. Arratsaldean, berriz, gazte mailako mutilen taldeak Egia hartuko du Labe-

geraietan, 16:30ean.

Bestalde, senior mailako mutilak 36-32 irabazi zioten zapatuan Ormaiztegiari, eta bihar, zapatua, Sestaori egingo diote bisita. Bergararrek hiru puntuko alde ateratzen diete bizkaitarrei.

FOTOKIROLA



Shotokan taldekoak, sasoi betean

Domekan Irunen jokatu den Karate Txapelketan, Markel Larrañagak lehen postua lortu zuen gazte mailan, eta Euskadiko Txapelketarako txartela lortu zuen. Infantil mailan, Aitziber eta Kepa Odriozola 3. eta 4. sailkatu ziren, hurrenez hurren. Alebinetan, Joane Amasorrain laugarren geratu zen.



ARTXIBOA

Asier Garitanoren gol bati esker, Alacantek Espanyol kanporatu zuen Kopan. Aurrerantzean entrenatzaile lanetan jardungo du.

FUTBOLA

Futbola utzi eta entrenatzaile lanetan hasi da Asier Garitano

Bigarren B mailako Alacant taldeko bigarren entrenatzailea da

EDU MENDIBIL

Asier Garitano bergararrak futbola utzi eta entrenatzaile lanetan hasi da 2.B mailako Alacant taldean. Liga amaitzeko 12 partidu geratzen zaizkie eta Asierren helburua igoera play-off-etarako sailkatzea da.

Asier Garitanok 33 urte ditu eta ibilbide luzea egin du futboleant, 10 urterekin Athleticen alebin taldean hasi zenetik. Bilbao Athletic, Eibar, Cartagena, Cadiz, Gava, Ferrol, Burgos eta Alacant taldeetan jokatu du. Aurtengo denboraldia Alacantekin hasi zuen eta otsailean hirugarren mailako Benidorm taldera joan

zen. Ordurako bazeukan Alacant taldeko Antonio Solana presidentearen eskaintza datorren denboraldian entrenatzaile lanetan hasteko. Baina gauzak aurreratu egin dira: batetik, eskumako belaunean lesio larria izan zuen eta bestetik, entrenatzaile aldaketa izan zen Alacanten. Emaizta txarrak tartean, David De la Herak Alberto Argibai ordezkatu zuen. Solanak Garitanori Alacantera bueltatzeko eskatu zion, eta orain De la Herak eta Garitanok zuzentzen dute taldea.

HELBURUA, 'PLAY-OFF'-A JOKATZEA

Esan bezala, 2.B mailako hirugarren multzoan dago Alacant. Sailkapeneko bosgarren postuan

dago, partidu bat gutxiagorekin. Asierren esanetan, "Castello eta Barça B taldeak ia-ia sailkatuta daude igoera play-off-a jokatzeko eta beste bi postuak Hercules, Burgos, Palamos eta gure artean erabakiko dira". Bihar, zapatua, Noveldaren aurkako derbia jokatuko du Alacantek. Garitano aulkian izan den hiru partiduetan, bi irabazi eta bestea berdindu egin dituzte. Bergararra gustura dago: "Aurten erretiratzeko asmoa nuen, eta datorren urtean entrenatzaile postuan jarraituko dut. Gazte mailako entrenatzaile txartela daukat eta erreional mailakoa ateratzear nago. Orduan, pozik nago futboleant jarraituko dudalako".

Bergara-Oiartzun, bihar, zapatua, Agorrosinen

E.M.

Domekan Aloña Mendiren kontrako derbia galdu ondoren, Bergarak atzera egin du sailkapenean. Bihar, zapatua, mahoneroek azkenaurreko tokian dagoen Oiartzun hartuko dute, 15:30ean.

Bergarak ez zuen partidu onik egin domekan, Aloña Mendiaren aurka, eta oñatiarrek merezimendu osoz eskuratu zituzten hiru puntuak. Etxekoak aurreratu ziren markagailuan eta Josu Zubikaraik mahoneroen aldeko berdinketa egin zuen bigarren zatiaren hasieran. Hala ere, Iñaki Mujika bergararrak 65. minutuan sartutako gol bati esker, Aloñak erdietsi zuen garaipena. Ondorioz, Bergara sailkapeneko

seigarren postuan dago orain, 43 punturekin. Bihar Agorrosinen bisitari izango den Oiartzun taldea azkenaurreko tokian dago, 20 punturekin, eta Bergarak ez luke arazorik izan behar partidua irabazteko. Hala ere, oiartzuarrak bosgarren dagoen Elgoibarri irabazteko gauza izan ziren aurreko astean (2-0).

BESTE HIRU PARTIDU ASTEBURUAN

Beste hiru partidu jokatuko dira Ipintzan asteburuan. Bihar, zapatua, bigarren mailako kadete taldeak Behobiaren aurka jokatuko du, 11:30ean. Arratsaldean, bigarren mailako gazte taldeak Eibartarrak hartuko du, 18:15ean. Domekan, berriz, Bergara eta Ondarroako Aurrera lehen mailako kadete taldeen arteko norgehiagoka izango da, 11:15ean.



E.M.

Juanina Garai preferente taldeko entrenatzailea, partidu baten atarian.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

SAILKAPENA

LEHEN MULTZOA	P	J
1. Mongatxurak	6	2
2. Bayer	3	1
3. Torrekua	3	3
4. Aterpe	3	2
5. Agirrebeña	3	2
6. Komando Piperrak	3	3

HIRUGARREN MULTZOA	P	J
1. Pagomendi	6	2
2. Artusamak	6	2
3. Txipiron	3	2
4. Fac	3	2
5. Ganbara	3	3
6. Etengabe	-3	3

BIGARREN MULTZOA	P	J
1. Bedarreta	6	2
2. TNT	6	3
3. A Ze Flaxa	3	2
4. Argandolas	3	2
5. Belengua	3	3
6. Las putas de Satan	3	3
7. Cipote Nucleico	0	3

LAUGARREN MULTZOA	P	J
1. Errotagain	6	2
2. Canalejas	6	2
3. Pirulotarrak	6	2
4. Dedo Pafarru	3	2
5. La Quinta del Buitre	1	3
6. Irubide	0	2
7. De Ore	-2	3

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 10:30: Pirulotarrak-La Quinta. Antolaketa
- 19:00: Bedarreta-Las p. de Satan. Etengabe
- 20:00: Artusamak-Etengabe. Las p. de Sat.

DOMEKAN, BARRUAN

- 09:30: Errotagain-De Ore. Txipiron
- 10:30: Txipiron-Ganbara. Errotagain
- 11:30: Fac-Pagomendi. Cipote Nucleico
- 12:30: A Ze Flaxa-Cipote Nuc. Pagomendi
- 17:00: Canalejas-Irubide. K. Piperrak
- 18:00: Agirrebeña-K. Piperrak. Torrekua
- 19:00: Torrekua-Bayer. Aterpe
- 20:00: Mongatxurak-Aterpe. Bayer

PILOTA

Kadete mailako bi partidu jokatuko dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Kadete mailako bi partidu izango dira gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Aitor Osak eta Josu Goñik osatutako bikoteak Hernaniko bikotearen aurka jokatuko du eta jarraian Xabi Azurmendik eta Jon Larrañagak Antiguoko taldeko ordezkarien aurka neurtuko dituzte indarrak.

TXIRRINDULARITZA

Gorlako Igoera martxoaren 30ean jokatuko da, eta beste ibilbide bat izango du

Gorlako Igoeraren 29. aldia martxoaren 30ean jokatuko da, 10:00etan. 23 urte azpiko eta eliteko txirrindulariek hartuko du parte eta nobedade nagusia ibilbide berria izango da: txirrindulariek 90 kilometroko ibilbidea bete beharko dute, Gorlako gainetik bi aldiz pasatuko dira, eta helmuga han bertan izango dute.

ESKIA

Pol-Pol Mendizale Taldearen eski irteerak martxoaren bukaeran eta Aste Santuan

Pol-Pol Mendizale Taldeak martxoaren 28tik 30era Baqueira Beretera mendi irteera antolatu du. Era berean, apirilaren 18tik 26ra Alpeetara joango dira eskiatzera, Cerviniara. Argibideak eta izenematea Pol-Poleko bulegoan, 943 76 48 51 telefono zenbakian.



Gabero abesbatzaren zuzendaria David Azurtza da, eta gaur egun 23 neska-mutilek osatzen dute.

ARTXIBOA

Emanaldia Mariaren Lagundiko elizan izango da, 19:00etan

Gabero abesbatzak Fisc-en alde abestuko du zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Gabero abesbatzak emanaldia egingo du bihar Fisc gobernuz kanpoko erakundearen alde. Mariaren Lagundiko elizan izango da emanaldia, 19:00etan. Bergarako taldearekin batera Tolosako Hodei Truk abesbatzak ere hartuko du parte emanaldian.

Etengabeko mugimenduan dabil-tza Gabero abesbatzako kide gazteak azken boladan. Aurreko asteburuan Portugaleten egon ziren, eta emanaldia egin zuten Santa Clara elizan. Portugaleten eman zuten, gainera, asteburua Gaberoko kideek, La Arboleda aterpetxean.

Bihar, zapatua, beste emanaldi bat egingo dute eta eurekin batera Tolosako Hodei Truk abesbatzak ere hartuko du parte. 19:00etan izango da, Mariaren Lagundiko elizan. Sarrerak bost euro balio du eta batuko duten

dirua Fisc gobernuz kanpoko erakundearendako izango da.

NIKARAGUAN 25 FAMILIARENDAKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN

Emanaldian jasotako dirua Nikaraguara bideratuko du Fisc erakundeak. Managuatik hiru kilometrorra dagoen Tipitapa finkapenean 25 familiarendako etxebizitzak egiteko, hain justu ere.

Gabero abesbatza 23 neska-mutiko gaztek osatzen dute; musika eta abestea gustuko duten gazteak dira. Loinaz Mosteiro taldeko kideetako batek esan duenez,

*Batutako dirua
Nikaraguan 25
fami-liarendako
etxebizitzak egiteko
izango da*

guztiak gazteak izanik, giro aparta dago taldean, eta abesbatzan parte hartzeak jende asko ezagutzeko aukera ematen die, beste herri batzuetako abesbatzako kideak, besteak beste. Hori horrela, Gabero abesbatzaren atea interesatzen duten gazteei zabalik daudela gehitu du eta, era berean, taldean parte hartzeko gonbita egiten die.

TORREVIEJARA, HABANERA LEHIAKETA BATERA

Loinaz Mosteirok gehitu duenez, beste bi emanalditarako berba emana dute dagoeneko. Bata apirilaren 5ean izango da, Arrasaten. Emanaldi horretan, gainera, Arrasateko Goikobalu gazte abesbatzarekin jardungo dute.

Bigarren emanaldirako urrugo joango dira, Torrevieja, hain justu ere. Maiatzaren 1ean izango da hori, eta abesbatza gazteendako antolatzen duten Habana Lehiaketan hartuko dute parte.

San Pedro elizako 12 margolan ikusgai daude Donostian

MONIKA BELASTEGI

Apostoluen martiria irudikatzen duten San Pedro elizako 12 margolan ikusgai daude egunotan Donostiako Elizbarrutiko Museoan. Horrez gain, Santa Marinako bi irudi ere eraman dituzte erakusketara.

Martiritza gure egunetan izeneko topaketak antolatu dituzte Donostiako Elizbarrutiko Museoak eta Gentza Ikastetxeak.

Topaketa horien baitan hainbat hitzaldi eta erakusketa bat egongo dira. Erakusketari dago-kionez, lotura zuzena du Bergararekin; izan ere, han ikusiko diren lanetako batzuk San Pedro eta Santa Marina elizakoak dira.

XVIII. MENDEKO HAMABI TAULA FLAMENKO

Erakusketaren izenburua *Martiritza eta fedearen testigantza* da. Martxoaren 7an ireki zuten eta apirilaren 28ra bitartean egongo da ikusgai.

San Pedro elizako 12 pinturataula daude ikusgai bertan. XVIII. mendeko eskola flamenkokoak, eta apostoluen martiritza irudi-

katzen dute. Horrez gain, Santa Marina elizako bi irudi ere badarude erakusketan: Burgosko Kristoa eta Santa Marina, hain justu ere. Horrekin batera, Gipuzkoako beste hainbat elizatako irudiak ere daude ikusgai, besteak beste, apostoluen martiritza irudikatzen dutenak.

Elizbarrutiko museoak Amara auzoan dago, Sagrada Familia kaleko 11. zenbakian. Bestalde, honako ordutegia du: martiritza netik zapatua egoten da zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

TAULAK ZAHARBERRITU EGIN DITU MUSEOAK

Koldo Apestegi museoak zuzendariaren esanetan, erakusketaren oinarria San Pedroko 12 margolanak dira.

Museoak zaharberritzeko hartu zituen arte elizan gordeta egon dira hamabi margolanak. Orain, museoak zaharberritu egin ditu eta hamar urtez bere esku geratuko dira, nahiz eta jabetza San Pedrok izaten jarraituko duen. Apestegik esan duenez, litekeena da erakusketa Bergarara ekartzea.

KULTURAPILULAK

Gaztetxoei zuzendutako Arratera irteera iragarri du Jardunek apirilaren 5erako

Asteburuko aisialdi programaren barruan, Arratera irteera antolatu du Jardun elkarteak. Apirilaren 5etik 6ra bitartean izango da eta izena elkartearen bulegoan eman beharko da. Errotalde jauregian, martxoaren 30a baino lehen. Prezioa 30 euro da.

Bestalde, Txorimalo Lehiaketan izena emateko epea zabaldu dute. Bakarka zein taldean har daiteke parte lehiaketan, baina taldean izanez gero, ezin izango da zortzi lagun baino gehiagokoa izan. Izena Jardun elkartearen eman beharko da apirilaren 4a baino lehen. Txorimaloak Erramu Zapatuko ferian egongo dira ikusgai, Ibarra kalean, eta sari banaketa egun berean egingo dute.

Azurren argazki erakusketa eta Aratusteetako argazkiak Nahikarin

Azurren argazki erakusketa dago ikusgai egunotan Nahikarin tabernan. *Euskal txokoak* bildumako hamahiru argazkiak osatzen dute erakusketa. Martxoaren bukaera arte egongo da ikusgai, tabernan ordutegian. Bestalde, Aratusteetan ateratako argazkiak ere eskuratzeko aukera egongo da Nahikarin.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 76 64 84.

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. **BERGARA**
Tel. 943 76 39 53

E, TXO!

GUREGAIK/ KONGRESUA

Gazteen gaineko jardunaldiak Bilbon

AINTZANE IRIZAR

Martxoaren 19an, eguaztena, hasiko dituzte gazteen gaineko nazioarteko jardunaldiak Bilboko Euskalduna jauregian. Gazteekin lotutako gaiak aztertuko dituzte hantxe hainbat adituk.

Martxoaren 19tik 21era gazteekin lotutako politiken gainean hausnartzeko hainbat aditu elkartuko dira Bilboko Euskalduna jauregian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta EAEko hainbat erakunde publikok antolatutako jardunaldietan. Hilaren 21a bitartean, hamaika hitzaldi eta lantalde antolatuko dituzte, gazteen gainean jarduteko.

Hilaren 19an, goizeko hamarretan egingo dute lehen berbaldia, mendebaldeko gazteen gainean. Orduantxe hasita, hamaika gai landuko dituzte, esan bezala: administrazio publikoen zeregina gazteen inguruan, gazteen parte-hartzea bermatzeko bideak, gazteei zuzendutako zerbitzuen garapena, etorkizuneko erronkak...

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez eskainiko dituzte hitzaldiak. Euskal Herriko, Kataluniako eta Europako hainbat herrialdeetako adituen iritziak eta azalpenak entzuteko aukera izango dugu.

Jardunaldi horietarako izena emateko aukera, baina, martxo hasieran bukatu zen.



Gazte politiken gaineko hausnarketa egingo dute Bilboko jardunaldietan.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Loinaz Mosteiro

“Begiradarekin seduzitzen saiatzen naiz”

A.I.

Abestea du gustuko Loinazek. Gaberon abesten du, gainera, Gazte Bergarar Orfeoian. Arkeologia eta artea ere oso gustuko ditu, eta etorkizunean arkeologo edo arte irakasle izan nahi duela esan digu.

- Txikitan, zer izan nahi zenuen?
Musika irakasle edo arkeologo.
- Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?
Espero dut ezkondata egotea eta gustuko lan bat edukitzea, arte irakasle edo arkeologo.
- Gurasoek zer errepikatzen

dizute behin eta berriz?

Ahizparekin ez haserretzeko horrenbeste eta etxeko lanetan gehiago laguntzeko, baina, egia esan, ez dakit zer gehiago egin behar dudan etxean...

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ezin dut haiengandik ihesik egin. Pentsa daiteke konfiantza emanaz gero gutxiago kontrolatzen zaituztela, baina niri horrek ez dit funtzionatzen.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Benetako lagunei eta familiari, maite nauen jendeari.

• Zure bertute bat?

Oso alaia eta irekia naiz, lagunak egiteko erraztasuna daukat.

• Eta hutsune bat?

Oso burugogorra naiz.

• Zerk amorratzen zaitu?

Jende faltsuak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak; gainera, gure aitarenak modukoak dauzkat.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Begiei eta izaerari; harroputzak ez zaizkit gustatzen.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Begiradaren bat bota, dantza egin...

• Fantasia sexual bat, zeinekin eta non?

Arratsaldeko zazpiak dira eta hori beranduxeago galdetu beharoko zenidake.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Abestea eta dantza egitea • LIBURU BAT: 'La fraternidad de Eihwaz', Cesar Mallorquírena • FILM BAT: 'La vida es bella' • MUSIKA TALDEA: Gabero • KIROL TALDEA: Ez daukat bereziki gustatzen zaidan talderik

TIRABIRAKA/ Bittor Rodríguez



ELKARRIZKETA

ESTIBALIZ ANDRIO/MEDIKU GERONTOLOGOA

“Bizimodu berria asmatu behar da erretiroan, eta gehiengoak ondo erantzuten dio etapa berri horri”

EDU MENDIBIL

Antsietatea eta estresa gainditzeko San Joxepe antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Estibaliz Andrio mediku gerontologoak *Estres y salud* izenburuko hitzaldia egin zuen joan den eguaztean.

G. Itxuraz, behintzat, erretiratuen kolektiboa da estresik sufritzen ez duena, ala?

E. Ez da pentsatu behar exekutiboek bakarrik sufritzen duten gaitza dela. Eguneroko bizitzan egoera askotan gertatzen da, azken baten, egokitze fase gehienetan agertzen da-eta. Erretiroa horretariko egokitze etapa bat da eta estres kasuak ematea ez da harrizkoa. Lana uzteak hainbat aldaketa eragiten die erretiratuei eta bizimodu berria asmatu beharrean aurkitzen dira, aisialdirako eta familiako harremanetarako denbora luzeagoa izaten delako. Zorionez, gure inguruan gehiengoak erantzun positiboa ematen dio erretiroari.

G. Estresa errazegi aipatzen dugu behin eta berriz, baina zeintzuk dira sintomak?

E. Eguneroko hizkuntzan erabiltzen den hitza da eta hainbat egoera adierazteko aitzakia da. Sintomak hiru mailatan izaten dira: fisikoan (lo falta, nekea, garrretako mina), psikologikoan (urduritasuna, antsietatea, memoria eta kontzentrazio arazoak) eta giza arloan, harremanetan sortzen diren arazoak, hain zuzen. Tentsio iturria zein den jakin behar da, eta ikusi aldatzeko modurik dagoen. Erretiroan, esaterako, diru sarrerak baxuagoak izaten dira, eta nekez alda dezakegu hori. Baina badira beste aldaketa batzuetara egokitze moduak, eta horiek landu behar dira zahartze osasungarria lortzeko, norbera gustura egoteko.

G. Eta zeintzuk dira zahartze osasungarria lortzeko jarraitu beharreko urratsak?

E. Gorputza eta burua zaindu behar dira, eta harremanak ere oso garrantzitsuak dira. Askotan giza rola galtzen dute erretiratuek, bizimodua lanaren inguruan antolatuta zutelako, harremanak tartean. Isolamendurako joerak arriskua dakar, bakardadea hor dagoelako. Horren ildotik, familiako harremanak eta bestelakoak ere oso garrantzitsuak dira.


G. Estresa izan duzue aztergai San Joxepeko hitzaldian, eta estresa positiboa izan daitekeela esan duzu.

E. Bai, ez dakit entzuleetako batzuk konbentzitu ditudan, bai-

na horrela da. Estresa beti negatiboa dela uste dute batzuek; negatiboa da gure ahalmenak gartzeko gauza ez garenean, balio-

gabetuta moduan geratzen garenean, hain zuzen. Baina estres positiboa ere badago, egoera berrietara egokitzera bultzatzen

zaituena. Barne indar moduko bat da, eta estres hori lagungarria izaten da. Izan ere, bizitzan askotan jasaten dugu hori.



Estibaliz Andrio.

Deutsche Post World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE

Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalerako bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expresekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expressekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

www.guipuzcoana.com

Harremanetarako: 943 763'642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - bergara@guipuzcoana.com

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze bi etxetako armarrak dira horiek?

PINTORE BERGARARRAK GAUR


Jesus Mari Lazkano

MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Jesus Mari Lazkano (Bergara, 1960) euskal pintore onenetakoen artean dago. Gautegiz-Arteagan bizi da eta azken 18 urteotan EHuko pintura irakasle da. Zabalotegiko lokalean hartu zituen lehenbiziko pintura eskolak, Okinaren eta beste pintore batzuen ondoan. Lehenbiziko erakusketa, berri, 15 urterekin egin zuen, Pol-Polen. Hamazazpi urterekin Bilbora joan zen ikastera: "Benetan flash bat izan zen niretako Bilbora etortzea. Orduan sortu zen industria arkitekturen seriea, paisaia ilunak. Horixe zen niretako Bilboren irudia". Serieen gainean egin du lan, negutegiena edo lorategiena, esaterako. Arkitektura oso gustuko du: "Paisaia bera arkitektura da. Guk ikusten dugun paisaia ez da naturala, gizonak eraldatutakoa baizik".

Artelan bat ona izateko zerbait transmititu beharra daukala dio. Bestalde, pintura modaz kanpo dagoen susmoa dauka: "Pintzela hartzea anakroniko bihurtu da. Hala ere, antigoaleko joerekin gauza modernoak adieraz daitezke eta erreminta modernoekin ezin dugu ezer berririk kontatu".

"Paisaia bera arkitektura da, gizonak eraldatutako paisaia delako"



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat bazkide ditu Bedelkar herriko dendarien elkarteak gaur egun?

- A/ 135.
- B/ 155.
- C/ 105.

2.

Zein da Gabero gazte abesbatzako zuzendaria?

- A/ Maria Jesus Ugalde.
- B/ David Azurtza.
- C/ Alfredo González Chirlaque.

3.

Asier Garitano futbolaria talde askotan ibilitakoa da. Hauetako baten ez du jokatu.

- A/ Cádiz.
- B/ Cartagena.
- C/ Getafe.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ASIER IPARRAGIRREndako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Asier! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Izagirretxeberri(Izarre Berri) / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Skip detergentea

14 ontzitxo

3,90€

649 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




San Pedro 21 Ibararai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



BERGARA
Unai Belategi
Martxoaren 14an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Franco
Martxoaren 16an, 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maria Zubia
Martxoaren 15ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Monika.



BERGARA
Andoni Bretaña
Martxoaren 16an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Igor Okina
Martxoaren 18an, 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Gorritxo.



BERGARA
Naroa Herrero
Martxoaren 16an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Eguren
Martxoaren 12an, 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA
Asier Eguren
Martxoaren 4an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Balanzategi
Martxoaren 13an, 5 urte.
Urte askotarako!
Leire, aita eta ama.



BERGARA
Unai Irizar
Martxoaren 18an,
urtebete. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
M. Antonia Pacheco
Martxoaren 20an, 59 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Naiara De Dios
Martxoaren 16an, 3 urte.
Urte askotarako!
Julen, ama eta aita.



BERGARA
Mireia Arakistain
Martxoaren 16an, 24 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Consuelo Millán
Martxoaren 15ean,
62 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Mairi Olabarria
Martxoaren 13an, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Iban Díez
Martxoaren 16an, 6 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak eta izaba.



BERGARA
Eneko Martin
Martxoaren 11n, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




BERGARA
Lorenzo Gómez
Martxoaren 15ean,
29 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Etxeberria
Martxoaren 19an, 5 urte.
Urte askotarako eta muxu
handi bat! Etxekoak.



BERGARA
Unai Prieto
Martxoaren 20an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Juan Manuel Bote
Martxoaren 15ean,
28 urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Jon Melchor
Hilaren 16an, 8. Zorionak!
Osaba-izebak, lehengu-
suak eta aitona-amonak.



BERGARA
Iker Ugarte
Martxoaren 14an,
urtebete. Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Andoni Elortza
Martxoaren 16an, 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



PROFESIONAL *liberalen* GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

UGALDE & ASOCIADOS

Bidekurutzeta 27. 943 76 11 57

Faxa 943 76 03 02

INJINERUTZA

ANGEL ARIZABAETA PADILLA

Espoloia 10. 943 76 59 18

TEKNIBER

Urarte 18. 943 76 53 19

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

APAREJADOREAK

XABIER GALLASTEGI

Ibargarai 35 (barruko plaza).

943 77 70 00

JOSE INAZIO MONDRAGON

Zurradero 8. 943 76 00 44

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

ALFIS

Ibargarai 22. 943 76 48 48

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL

Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67

JESUS LASKURAIN PÉREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 14a / 150. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Erreka ikusten egon ziren Jaurlaritzakoak

AINTZANE IRIZAR

Egubakoitzean egon ziren Antzuolan Eusko Jaurlaritzako arduradunak. Ana Isabel Oregi Ur Zerbitzuko zuzendaria, Iñaki Ezkurra Ingurumen Saileko sailburua eta Julen Goikoetxea Lurralde Ordenazio eta Ingurumen Saileko aholkularia, hain zuzen ere, egon ziren herrian.



Plazako etheen atzean gainezkabidea egingo dute.

GAINEZKABIDEA, ATZETIK ETA ESTALITA Horixe izan da Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakia. Errekak lehengo bidetik jarraituko du, plaza azpitik, estalita. Baina, atze-

an, plazako etxeek baratzak dituzten tokian, gainezkabidea egingo dute, erreka hazita datorrenean ura handik joan dadin. Proiektua aurten bukatzea espero dute.

Errekaren egoera bertatik bertara ikustea, Herriko Plazako bizilagunekin aurrez aurre egotea eta euren kezkek entzutea eta Udaleko arduradunekin hitz egin eta bata bestearen kezka eta asmoak elkar trukatzeari; horixe izan zen, besteak beste, aurreko egubakoitzean Jaurlaritzako arduradunek Antzuolara egindako bisitaren arrazoia eta helburua.

Nahikoa zeresan, kexa, eztabaida eta ika-mika sortu dituen gaia dugu errekarera. Azkenean, baina, badirudi konpontzeare dagoela. Eusko Jaurlaritzako arduradunek hartutako erabakiak, gutxi gorabehera, alde guztiak laga ditu konforme. Nolabait, guztien arteko adostasuna lortu dutela esan daiteke.

HIRIGINTZA

Anbulatorioan igogailua jartzen eta fatxada txukuntzen dihardute

AINTZANE IRIZAR

Aurreko astean hasi zituzten ambulatorioan hainbat berrikuntza egiteko lanak. Lan horietako gehienak irisgarritasun arau berriak betetzeko helburuarekin egingo dituzte. Udaleko arduradunek espero dute apirilera lanak bukatuta egotea.

Orain dela hilabete gutxi, Sagasti eta Olanan etxe inguruko urbanizazio lanen barruan, ambula-

torioako eskailera berriak egin zituzten. Orain, berriz, irisgarritasun planari jarraituz, hainbat berrikuntza lan egiten dihardute.

Alde batetik, igogailua jartzeko lanetan dihardute aurreko astea ezker. Eskaileren alboan jarriko dute igogailua, ambulatorioa igo ahal izateko. Bestetik, komunak berriro egingo dituzte, eta minusbaliatuen egokitu. Izan ere, ohiko komunak besterik ez dago gaur egun herriko ambulatorioan.

Gauzak horrela, mugitzeko arazoak dituzten herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie Udalak berrikuntza horiekin guztiekin.

Bestalde, lan horiek aprobetxatuta, ambulatorioaren fatxada txukundu egingo dute. Izan ere, fatxada hori ez dago batere dotorea; horrez gainera, Aiherratik Sagastira doan bidea egin zutenetik, ageri-agerian geratu da ambulatorioa. Horrela, goitik behera berriro dute ambulatorioa.

LABUR

Maristena izandako eraikina botatzeko arazoak dituzte Udaleko arduradunek

Eraikina botatzeko proiektua esku artean duten arren, beste arazo bat sortu zaio orain Udalari. Kontua da Iberdrolak kable batzuk dituela pasatuta eraikina aprobetxatuz, eta kable horiek kendu behar direla eraikina botatzeko. Iberdrolak dirutza bat eskatu dio Udalari kableak kentzeagatik, baina Udala ez dago diru hori ordaintzeko gertu. Udalaren iritziz, Iberdrolaren kontua da euren kableak pasatzeko eraikina aprobetxatu izana. Gauzak horrela, Udalaren eta Iberdrolaren arteko arazo hori konpondu arte ezin izango dute eraikina eraitsi.

Gaztetxea oinetako denda egondako tokian, Kalebarrenean, jartzea erabaki dute


Aurreko asteko eguenean egindako osoko bilkuran, gaztetxea Kalebarrenean jartzea erabaki zuen udalbatzak, lehen oinetako denda egondako tokian. Bi aukera zituen esku artean Udalak: Surpe taberna egondako lokalean edo Kalebarrengo honetan jartzea gaztetxea. Gazte Asanbladako kideekin berba egin zuten Udaleko arduradunek; haiek nahiago zuten bigarren aukera, eta aukera horren alde egin zuen udalbatzak osoko bilkuran.

Orain, lokal hori gaztetxea jarri ahal izateko moduan egokitu beharko dute Udalak eta Gazte Asanbladak, lankidetzan.

Arrola mendi elkarteak irteerak antolatu ditu datozen bi asteburuotarako

Domekan, hilaren 16an, gaztetoendako irteera antolatu dute, iherrereko gainerako mendi elkarteekin batera. Eskola arteko ibilaldi neurtua izango da domekakoa, Deban. 08:15ean irtengo dira, Herriko Plazatik.

Hurrengo asteko domekan, berriz, hilaren 23an, gazte eta nagusiendako irteera antolatu dute. Kurtzeta gainetik Gantzagarraino joango dira oinez. Hiru ordu eta erdi inguruko ibilaldia izango da eta Aramaio inguruak ikusteko aukera egongo da.



Apirilera lanak bukatzea espero dute Udaleko arduradunek.

KIROLA


Finalerako txartelak ihes egin die Olalde elkarteko infantilei

AINZANE IRIZAR

Denboraldi bikaina egin dute Olalde elkarteko pilotari infantilek. Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa ona egin dute; txapelketa horretako finalurrekoak jokatu dituzte azkeneko bi asteburuotan. Azkenean, baina, ezin izan dute lortu finalerako txartelik.

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan hiru gaztetxok dihardute, eskuz, Olalde elkarteko infantiletan: Aitor Mendizabalek, Aitor Jauregik eta Asier Longaresek, hain zuzen ere.

Aurten oso denboraldi ona egiten dihardute: Gipuzkoako Txapelketan finalurrekoetara iritsi dira, baina azkenean ez dute finalerako sailkatzerik izan. Martxo lehen asteburuan, 18-17 irabazi zioten Beharzanari. Aurreko asteburuan, berriz, itzuliko partiduan galdu egin zuten, 18-12. Horrela, hirugarren edo laugarren geratzeko lehiatu beharko dira orain. Hain justu, oraingo asteburuan dute lehendabiziko partidua, Zizurkilan.



Hirugarren postua lortu nahi dute infantil mailako pilotariek.

HIRUKO BIKOTEA

Esan bezala, hiru gaztetxok dihardute Gipuzkoako Txapelketa jokatzen, Mendizabalek, Jauregik eta Longaresek, hain zuzen ere.

Normalean, Mendizabalek jokatzen du atzelari, baina hiru-

rek txandakatu jokatzen dituzte partiduak.

Astean birritan entrenatzen dira, Jose Mari Mendizabal entrenatzailearen aginduetara.

Orain, Debarroko Txapelketa jokatzen hasi dira.

HERRI IKASTETXEA

Liburutegia jartzeko batzordea sortu dute

AINZANE IRIZAR

Herri Ikastetxeko arduradunek eta gurasoek aurreko asteko egunean batzarra egin zuten, liburutegia egokitzeko batzordea osatzeko. Euren helburua da azkeneko solairuan, garai baten eskolako atezainaren etxea egondako tokian, liburutegia egokitzea.

Ikasturte hasieratik, lehen liburutegia zegoen tokian jantokia dago. Orduz gero, liburutegiko material eta liburu guztiak eskolako beste gela baten dauzkate, erakusketa gelan, hain zuzen ere.

Eskolako arduradunen asmoa da azkeneko solairuan jartzea liburutegia; garai baten, atezaina bizi zen han, familiarekin.

Liburutegia jartzeko hainbat egokitzapen lan egin beharko dituzte eraikinaren lokal horretan: hormak bota, sistema elektriko berria eta berogailua jarri... Lanok auzolanean egin nahi dituzte, eta horretarako batzordea sortu berri dute.

Aurreko asteko egunean egin zuten batzordea eratzeko

batzarra gurasoek eta ikastetxeko irakasleek.

Udaleko aparejadoreak liburutegia egokitzeko egindako proposamena erakutsi zitzaientzatzen batzarrean elkartutako gurasoek, eta azkeneko solairuko lokala ikusteko aukera ere izan zuten.

Batzordeko guraso gehientsuenak gremioetakoak dira, arotzak, iturginak eta igeltseroak, besteak beste. Horrela, lanak auzolanean eginda, merkeago aterako dira egokitze lanak.

Bestalde, Udalak Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailari aurkeztu zion liburutegia egiteko proiektua, eta dirulaguntza eskatu. Jaur-laritzak dirulaguntza hori emango dio Udalari, eta, horrela, lanen %55 dirulaguntza horri esker finantzatu dute.

Aipatzekoa da, bestalde, ehun bat metro koadro dituela azkeneko solairuko lokal horrek; horrela, liburutegiaz aparte, beste erabilpen batzuetarako tokia ere geratuko zaie lokal horretan.

Batzordeko kideen asmoa da Aste Santuko oporraldietan has-tea lokala egokitzeko lanekin, eta urte amaitu aurretik bukatzea.



Egunkaria-ren aldeko batzarra

Martitzenean, hilaren 11n, Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko herri batzordea osatzeko batzarra egin zuten udal-txean. Dozena bat lagun elkartu ziren hantxe, eta hainbat ekimen abian jartzeko lanean hasi ziren. Atzo, eguena, 11:45etik 12:15era eta iluntzeko zortzietan kale bilkurak egitekoak ziren. Kale bilkurotan, gainera, harpidetzak egiteko eta Euskaldunon Egunkaria-ren materiala saltzeko mahaiak jartzea erabaki zuten herri batzordeko kideek. /A.I.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Martxoak 15
15:30: Antzuola-Beti Ona (Gazteak)
17:30: Antzuola-Amaiak Bat (erreg.)

PILOTA
Martxoak 14
Udaberri Saria
22:00: Olalde-Lazkao (Nag. eskuz)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 3 Legazpi 0 (2. erreg.)
Antzuola 2 Segura 3 (Gazteak)

PILOTA
Udaberri Saria
Olalde-Altzarrak (nag. pal.) . . 25-35
Gipuzkoako Txapelketa
Beharzana-Olalde (inf. eskuz) . . 18-12

II SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA. Tel. 943 76 60 89

Goibekokokale

ELGETA / Barikua / 2003ko martxoaren 14a / 134. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Goibeko elkarteak Espaloiarri bultzada emateko konpromisoa hartu du

OXEL EROSTARBE

Aurreko egunean egindako batzar orokorrean, batez ere, Espaloia Kafe Antzokiaren gainean jardun zuten Goibeko Kultura Elkarteak bazkideek. Batzarrean batutako bazkideek onartu zuten proiektuari behar duen bultzada ematea, irailera-ko zabalik egon dadin.

Badirudi irailerako zabalik egongo dela Espaloia Kafe Antzokia. Udalak aurki kaleratuko du Espaloia aretoaren kudeaketa hartuko luketen elkarteendako baldintza plegua. Goibeko Kultura Elkartearen proiektua areto horretan jatetxea eta taberna izango dituen kafe antzokia zabaltea da. Hala, aretoaren kudeaketa bere gain hartzeko aukera asko ditu Goibekok. Hori dela eta, gaia aztertzeko Udaleko ordezkariekin eta Kultura teknikariarekin zenbait batzar izan dituzte elkarte talde eragileko kideek. Udalak aurrekontuetan 265.659 euroko inbertsioa zehaztu zuen Espaloia egokitzeke. Dena dela, inbertsioa ez du Udalak bakarrik egingo; izan ere, Jaurlaritzatik eta Diputaziotik etorriko den diru-



Goibeko Kultura Elkarteak batzar orokorrean Espaloia Kafe Antzokiaren gainean jardun zuten bazkideek.

laguntza 51.000 euro ingurukoa izatea espero dute, Goibekok 84.141 euro inguruko inbertsioa egingo du eta Udalak geratzen diren 130.518 euroak ipiniko ditu.

KREDITUA ESKATU BEHARRA

Goibekok 84.141 euroko inbertsioa egingo du Espaloia aurrera eramateko. Inbertsio horri egiteari baiezkua eman zion batzar

orokorrak. Orain, inbertsioa zelan egin aztertzen dihardute. Bazkideek espero dute aretoaren kudeaketa Goibekoren esku utzi eta irailean zabaltea.

Goibekok bere esku dagoen guztia egingo du Espaloia irailerako zabalik egon dadin

Aretoa egokitzeak 265.659 euroko aurrekontua izango du; Goibekok 84.141 euro ipiniko ditu

84.141 euroko inbertsioari aurrera egitea erabaki zuten Goibekoko bazkideek batzar orokorrean

HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Kimikaria

Inor ez da perfektua

Mila aldiz erakutsi digu eguneroko bizitzak, gauzak ongi egiten ari garenean ustea izan, eta kontrako emaitzak lortzen ditugula. Maiz. Ez dago munduan gizakirik gauzak beti ondo egingo dituenik, gaur arte ez da jaino behintzat. Aldiz besteek gauzak ongi egiten dituztenean, goraiatu beharrean isilik eta naturaltasunez ikusten ditugu. Guztia ondo doa, oharkabean. Noizean behin egindako lanarengatik zorion bat edo beste jasotzen da, baina esan bezala kasu horiek gutxieneoak dira. Aldiz, gauzak gaizki egin

badira edo nahigabe bide txarretik eraman ditugunean, neurri txikian izanagatik ere, bere oihartzuna hamar milagatik biderkatzen da. Pikutara aurretik egindako ahalegin guztiak! Akats horrek aurretik egindako lan bikainak baino hitzordu gehiago betetzen ditu jendearen ahoetan. Zergatik gertatzen da hau? Ba ez dakit, gizakiok horrelako joera bereziak ditugulako. Hau



“Gogoratu akatsak egiteko bertan egon behar dela”

horrela, gauzak gaizki egin dituen pertsona hori, etikoki, barkamenak eskatzera behartua dago.

Antzerako kasua izan dugu, astekari honetan elgetako gaietaz idaztea arduratu den kazetariarekin. Aitortu zuen noizbait hanka sartu zuela, baita

barkamenak eskatu ere denen aurrean behar den bezala. Baina argi gera dadila, egin duen akats honek ez duela,

inondik inora herri hau informatzen egin duen lanaren ahaleginik zikindu. Akats bat izan da, gaizki ulertze bat, nik, hark edo beraiek izan zezakeen bezala. Ez nioke garrantzi gehiago emango. Eta gogoratu akatsak egiteko bertan egon behar dela, jardunean egoten ez denak, ez du akatsik egingo baina ezta ere lausengurik jasoko. Beraz lasai egin lo eta jakin kontzientzia lasai izan behar duzula, zeren azken finean hitz eginez gauzak konpontzen dira. Nik behintzat guztiaren gaineratik zure lana goraiatzeko dut argi gera dadila!

LABUR

Apirillan 7xan Korrikako testigua hartzeko gertu

Astelehenean egin zehar batzarra Korrikaren aldeko Elgetako batzordiak. Korrikadala-eta zenbait ekintza antolatuko ditue: apirillan 5xan Kutsidazu bidea, Txabalantzen lana; apirillan 6xan, Txabalantzen magoa; eta apirillan 7xan Korrika Txikia, txokolatetan eta Kanpanzarren Korrikako testigua eramatia.

Herriko tabernetan Korrikak-laguntzaille txartelak saltzen dihardute. Korrikak-laguntzaille egiteko 10 euro ordaindu besterik ez dago.

KULTURA

Elkarte danak 'Egunkaria'-n alde

O.E.

Herriko elkarte danak bat egin zeben, atzo, Kontseiluak deitutako *Egunkaria*-ren aldeko elkartasun egunian. Goizian eta illuntzian konzentraziñuak izan ziran plazan, eta herriko kalietan kalejiria egin zeben. Harpidetzak egitteko deia egin dabe.

Honek lerruok atzo illuntzia aurretik idatzitta dare. Ezin esan, hortaz, atzo *Egunkaria*-n alde Elgetan egindako ekitaldixetan zenbat jentek hartu zeban parte. *Egunkaria*-n aldeko Elgetako batzordekuek "eskerak eman nahi dotse atzo euskarazko egunkarixan alde anto-

latutako ekintzetan parte hartu zeben danei". Hau batzordiau herriko elkarte danek osatzen dabe: Intxorta Elkartea, Ozkarbi Elkartea, Gure Borda Elkartea, Mendi Mendian Elkartea, Guraso Elkartea, gaztetxia, Jubilatuen Elkartea, Goibeko Kultura Elkartea, Maya Ingurumen Taldea, Tabernari Elkartea, Txirrindulari Elkartea, EAJ-EA, Elgeta Auzolanian eta Aralar. Hurrengo astietan be batzarrak egingo dittue batzordekuek, etorkizunian *Egunkaria*-n alde aurrera eruan leizken ekimenak zehazteko.

HARPIDETZAK EGITTEKO ESKAERIA
Batzordekuek GOIBEKOKALEri adierazi dotsenez, "momentu

honetan garrantzitsuena *Egunkaria*-ko harpidetzak egittia da. Harpidetzetatik atarako dan dirua bihar-biharrezkua da-eta euskarazko egunkari barri eta zabala egitteko". Harpidetzen gainian informaziñua gura daben elgetarrak liburutegixan izango dabe horretarako aukeria. Eta kalia be jarriko dittue mahaixak harpidetzen gaineko informaziñua emoteko. Honetan mahaixetan *Egunkaria*-n aldeko materiala jarriko dabe salgai.

Egunkaria-ko harpide egittiak 275 euro balio dau. Hiru modutara ordaindu leike: epe baten; bi epetan, 137,5 euro bakoitzian (sei hillian behin); eta lau epetan, 68,75 euro bakoitzian. (hiru hillian behin).



Domeka eguardixan *Egunkaria*-ko materiala jarri zeben salgai plazan.

HIRIGINTZA

89.361 euroko laguntza hirigintzarako

O.E.

Eusko Jaurlaritzak Elgetako Udalarari 89.361,32 euroko (14.868.473 pezeta) dirulaguntza eman dio hirigintzako hainbat berrikuntza egiteko. Udaletik esan dutenez, bi hilabete baino lehen Mendizaleen plazan eserleku berriak eta San Roke plazan eserlekuak eta lorontziak ipiniko dituzte. Eta Espaloia aretoa egokitzeko lanak maiatza aurretik hasiko dituzte.

Era berean, bi hirigintza proiektu egingo dituzte: bata, Salbador kalea oinezkoendako egokitzeko eta bestea, Maala inguruaren urbanizazioa zehazteko. Lehen proiektua uztaileko eta bigarrena urtea amaitu aurretik gertu egotea espero dute. Lanak ez dira berehala hasiko, proiektuok aurrekontu handia dute-eta.



Arbolei kimuak mozten jardun dute astean, eta eserlekuak laster aldatuko dituzte.

Aurrekontua eta laguntzak

- 1. Mendizaleen plazan 10 eserleku**
Aurrekontua: 7.714 €
Diru laguntza: 4.522 €
- 2. San Rokeko plaza: urbanizazioa, eserlekuak eta lorontziak**
Aurrekontua: 17.791 €
Diru laguntza: 10.374 €
- 3. Salbador kaleko urbanizazio proiektua: oinezkoentzako kalea**
Aurrekontua: 10.692 €
Diru laguntza: 8.295 €
- 4.- Espaloia aretoa: egokitze lanak**
Aurrekontua: 265.659 €
Diru laguntza: 42.717 €
- 5.- Maala inguruko urbanizazio proiektua**
Aurrekontua: 30.366 €
Diru laguntza: 23.452 €

LABUR

KZGuneko azken ikastaruetan izena emoteko aukeria

Interneteko ikastaruetan parte hartu nahi dabenak lehenbailehen emon bihar dabe izena KZGUNian. Izan be, martxotik aurrera jente kopuru bat batzen danian bakarrik egongo dira ikastaruak. KZGunearen ardurua Udalak hartuko dau martxuan.

Lau t'erdiko Txapelketan 261 pilotari izango dira

Martxoko azkeneko barikuan hasiko da Elgetako Lau t'erdiko Txapelketa. Urtero moduan, amateur eta kadete mailetako pilotari onenak etorriko dira Elgetako txapelketa jokatzera. Nagusien mailan 167 pilotarik hartuko dute parte eta kadeteen mailan, berriz, 94 pilotarik.

Estampakoak, domekako Kopako finalerako bidian

Aurreko domekan euren aurkarixak azaldu ez ziranez, Eibarko Saskibaloia Txapelketako Kopako finalerdixetan izango dira Estampaciones Intxortakuak. Finalerdixa zapatuan, 10:30ian, jokatuko dabe Maixa tabernaren aurka. Hau partidua irabazi ezker, domekan, 16:30ian jokatuko dan finalian izango dira. Liga Txapelketa irabazi ostian, Kopako finala jokatzia da Estampakuen helburua. Ligan onenak izanda, aukera haundixak dittue.

Tanborradan 250 lagun batu gura dittue

Jai batzordekuak hasi dira aurtengo Ferixa Nagusixetako ekintza garrantzitsuena izango den tanborradia antolatzen. Adin guztixetakuak hartu leikie parte tanborradan. Horretarako, izena emon biharko dabe herriko elkarte eta tabernetan. Eta aurreko urtietan parte hartu dozuenok be izena emon bihara daukazue, antolatzailliak aurrez jakin gura dabe-eta tanborradan zenbat lagun izango diran. Martxuan 30a da izena emoteko azkenengo eguna./O.E.



ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Lehenengotako
dantza
erakustaldixa

Gaur ekarri dotsuegun erretratu Elgetako gaztiek egindako lehenengotako dantza erakustaldixetako batekua da. Hillabete batzuk ikasten jardun ostian, dantza erakustaldixa egin zeben plazan. Seguru-seguru ezin esan geiken arren, uste dogu erretratu Andra Mari jaixetan atarata dagola. Dantzarixen atzekaldian gala jantziak ipiñitta ikusi geike udaletxia. Eta dantzarixak be dantzako erropa barrixekin agertzen dira. Hemen egunian jente ugari batu zan plazan; udaletxeko arkupiak eta balkoia jendez beteta ikusten dira.

Honek dira erretratuan ikusi geiken dantzarixak. Belauniko, ezkerretik eskumara: Marisol Alberdi, Juan Ramon Basauri, Maribel Agirre, Alberto López, Mariasun Agirre, txistulariak, Sagrario Bolinaga, ezegaguna, Jesusita Iturricastillo, Jose Antonio Irazabal, Kontxi Gorrotxategi, eta Manu Sarasua. Tente, ezkerretik eskumara: Mari Karmen Alberdi, Gotzon Elkoro, Mari Karmen Larraña-



ga, Helena Arozena, Gregorio Santa Cruz, Joakin Gastezi, Jose Arrizabala, Mari Karmen Azkarate, ezegaguna, Mari Karmen Arantzeta, Juan Mari Arantzeta, Milagros Moyo, Patxi Basauri eta Maribi Sarasua.

Urtea: 1970

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Lasao kaleko
etxebizitzak

Lasao kalekua da gaurkuan hona txokora ekarri dotsuegun erretratua.

Kalia dezente aldatu da. Erretratu zaharrenian, Zabala Hermanos-eko tailerra, Zabalatarren etxia eta beste etxe bat bakarrik ikusiko dittuzue. Hemen erretratuan elizia ikusten dan tartian gaur egun beste etxebizitza bloke bat dago. Zabalatarren enpresia han jarraitzen dau. Eskopetak egittiarren da ezaguna.



≈ 1965

Ezkerrian ikusten dogu eskopetak egittigaittik ezaguna dan Zabala Hermanos enpresia. Hango semien etxia dago aldamenian.



2003

Lasao kalian goikaldian etxiak ikusten dittugu. Zabala Hermanos enpresia han jarraitzen dau gaur egunian be.



umelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

ARANE
KRISTALDEGIAArtekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegiaBoni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

2003KO ARATUSTEETAKO KALE-ANIMAZIOKO SARIDUNAK: KARABANAKOAK

150 eurotako bonoa

Bedelkarreko jatetxe eta tabernetan erabiltzeko




Gabilondo
Irala 5 Tel. 943 76 27 83

udaberria!

Corsa **EDITION** berria
Ekipamendu eta aurrezki eksklusiboak



Martxoan, Corsa deskontuarekin | **2.400€**
Gehienez



Opel EDITION gamak oso ekipamendu eksklusiboa eta 2.400€ eurorainoko deskontua eskaintzen dizkizu Agila, Corsa, Astra eta Zafira autoetan.

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Sustapen hau baliozkoa da Penintsulan eta Balear Uharteetan, stock-ean dauden autoendako, hil bukaerara arte. Deskontua, Corsa Diesel gamak kalkulatu.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es